

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakariak Nafarroako Ubideko ura aprobetxatzen duen zentral hidroelektrikoa ireki du Agoitzen

*Sortutako energiak urtean 2 milioi euro emango ditu, kanala egiten amaitzen denean.*

Jueves, 17 de octubre de 2013


Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak eta Aranzazu Vallejo Canal de Navarra S.A. (Canasa) sozietate publikoaren zuzendari nagusiak Agoizko [zentral hidroelektriko](#) berria ireki dute ostegun honetan. Zentralak Nafarroako Ubideko ura aprobetxatzen du energia sortzeko.

11 milioi euroko inbertsioa izan duen instalazioak 33 gigawatt ekoitziko ditu orduko (GWh), eta jarduerari esker urtean 2 milioi euro hartuko ditu Canasa sozietate publikoak, kanala egiten amaitzen denean. Sozietate hori arduratzen da kanala eraiki eta ustiatzeaz, eta gobernu zentralak eta Nafarroako Gobernuak esku hartzen dute sozietatean.

Ekoizpena zein kanalaren eraikuntzan berriro inbertituko diren diru-sarrerak pixkanaka handitu egingo dira ureztatzen den azalera eta, ondorioz, Nafarroako Ubideko uraren eskaria areagotu ahala.

Aurten, benetako ekoizpena 5 GWh ingurukoa izango da eta diru-sarrerak 250.000 eurokoak gutxi gorabehera, zentralaren ustiaketa ureztatze kanpaina dagoeneko abian izanik hasi eta uraren eskaria ere kalkulaturakoa baino txikiagoa izan baita.

Mintzaldian, Barcina lehendakariak nabarmendu du zentrala eraikitzeak eragin duen hasierako inbertsioa errentagarri bihurtuko dela energia garbia lortuko delako eta Nafarroako Ubidea eraikitze baliabideak emango dituelako.



Barcina Lehendakaria, eserita, zentrala abian jartzen.

Ekitaldia kanalaren hargunean izan da, hoditeriaren hasieran, eta bertan izan dira, halaber, José Javier Esparza Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta

Toki Administrazioiko kontseilaria eta Carmen Alba Gobernuaren Nafarroako ordezkaria.

### Zentral osagarria

Azpiegitura berriak beste zentral baten ekoizpena osatzen du. Zentral hori Itoizko presaren oinarrian dago, eta Irati ibaiaren bidez husten den urtegiko ura aprobetxatzen du.

Lehen instalazioak 13,6 milioi euroko kostua izan zuen eta 368 GWh ekoizti ditu 2008an martxan jarri zenetik. Horri esker, ordutik hona, Canasak 30 milioi euroko diru-sarrerak lortu ditu.

Hortaz, Itoizko presan pilotutako emari guztiak orain aprobetxatzen dira, presaren oinarriko zentralaren zein kanalaren hargunearen bidez.

### Zentralaren ezaugarriak

Gaur ireki den zentrala eraikitzeke urte eta erdiko epea eman zen, hau da, 2011ko abendutik 2013ko ekainera, eta iragan abuztuan jarri zen martxan, proba-aldirako.

54,968 metroko gehienezko saldo hidraulikoa du eta gehienez 45 metro kubiko segundoko eraman ditzakeen diseinuzko emaria. Hasierako hoditeriak 3,5 metroko diametroa du, hodia 2,5 metroko diametroko bi hoditan (bata turbina bidez) banatzen den piezaraino. Bi hodian diametroa 2,2 metrora txikituko da zentralera iristean.

Zentralak ardatz bertikaleko Francis motako bi turbina ditu, zuzenean sorgailura atxikita. Bakoitzaren gehienezko potentzia 10.500 kW-ekoa da eta abiadura nominala 375 bira minutukoa. Sorgailuak sinkronikoak dira eta 2x10.000 kVA-ko potentzia dute.

### Nafarroako Ubidea

Itoitz-Nafarroako Ubidea proiektuaren helburuetako bat laboreen 59.160 hektarea ureztatu ahal izatea da, baita edateko uraren hornidura Nafarroako biztanleen % 70entzat bermatzea ere. Gainera, industrialdeen 650 hektarea sortzea eta Foru Komunitatean kontsumitzen den energia elektrikoaren % 6,5 ekoiztea ahalbidetuko du.

Azpiegitura eraiki eta ustiatzeko, 2000ko urtarrilean Canasa sozietate publikoa sortu zen. Sozietatearen % 60ko zatian estatuak esku hartzen du eta % 40ko zatian Nafarroako Gobernuak.

Proiektuaren aurrekontua 723,37 milioi eurokoa da. Zenbateko horren % 50 estatuak (217,01 milioi euro) eta Nafarroak (144,68 milioi euro) eman dute. Gainerakoa maileguren bidez finantzatu da (262,83 milioi euro). Erabiltzaileek ordaintzen dituzten tarifen eta zentral hidroelektrikoek sortutako baliabideen (98,85 milioi euro) bidez amortizatuko dira maileguak.

Eraikitzeke hiru fase ezarri ziren plangintzan. Lehenengoa, Pitillasen dagoen Aragoi ibaiaren inguruetaraino iristen dena, amaituta dago. 98 kilometro luze da eta 22.363 hektarea ureztatzen ditu.

Berriki, gobernu zentralak eta Nafarroako Gobernuak [lehen fasea handitzea](#) erabaki zuten, 21 kilometroko beste adar bat eginez. Horrek Itoizko urtegitik Arga eta Egako erriberako beste 15.275 hektareatarra eramango du ura. Lanak 2014an hasiko dira egiten.



Agintari eta teknikariak instalazioetan zehar egin duten ibilbidearen une batean.

Amaitzeko, bigarren eta azken faseak Aragoi eta Ebro ibaiak zeharkatzen ditu eta Lor urmaelean amaituko da, Ablitas herrian, Erriberako premiei erantzuteko. Kanalak, amaitzean, 198 kilometroko luzera izango du.

### Galería de fotos



Nafarroako Ubidearen harguneko zentral hidroelektrikoaren kalpoaldeko ikuspegia.



Nafarroako Ubidearen harguneko zentral hidroelektrikoko turbina-gela.